

NatUDALEkuak, udalekuak Ulian, oporrak naturaz inguraturik igarotzeko aukera aparta

- *Cristina Enea Fundazioak udalekuak antolatu ditu aurten lehenengo aldiz, Ulia Interpretazio Zentroan. Eskaintza 6 eta 10 urteko haurrei zuzenduta dago eta egunero 4 orduz Uliako ingurune paregabeaz gozatzeko aukera izango dute, naturan bertan egingo diren jarduerekin.*
- *Eskaintza uztailaren 1etik 5erako astean izango da eta izen-emateak maiatzaren 13an irekiko dira www.cristinaenea.eus webgunean.*



Donostia, 2024ko maiatzaren 3a.- Ulia Interpretazio Zentroko arduradun Oihana Orkolagaren esanetan, *"frogatuta dago naturarekin harremanetan hazteak onurak dituela haurren garapenean eta adin tarte bakoitzak badu naturarekin harremanetzeko modu berezia"*. Horregatik, jakin-minez eta ekintzarako gogoz beteriko etapa honetan, natura, eta zehatzago Uliako basoa, ingurune paregabea da bakoitzaren gaitasunak garatzeko tresnak eta jakintzak eskuratzeko. *"Modu ludiko batean naturarekiko errespetu eta maitasuna garatu eta gure hiriko altxor berde honen zaintzaile bihurtzeko lehenengo pausoak emango ditugu uda honetako NatUDALEkuetan"*, gaineratu du Orkolagak.

Taldeak mugatuak izango dira, esperientzia ahalik eta aberasgarriena izan dadin parte-hartzaileentzat, eta landuko diren gaien artean daude Uliako bitxikeriak, bertako anfibio eta hegaztiak, zuhaitzak eta intsektuak, besteak beste. *"Horretarako metodologia berezia garatuko da jolasaren, behaketaren, esperientziazkoaren eta ibilaldien bidez, naturaren balioa eta Uliaren aberastasuna modu didaktikoan ezagutzeaz gain, esperientzia ludikoa ere izan dadin"*, azaldu du Ulia Interpretazio Zentroko arduradunak.



Orkologak azpimarratu nahi izan duenez, eguraldia ez da aitzakia izango udalekuetan parte hartzeko: *"jarduerak egokituta daude baldintza meteorologiko guztietara, eta kanpoan egin ezin daitezkeen ekintzak Uli Interpretazio Zentroan bertan garatuko dira"*.

Ordutegia 9:30etik 13:30era izango da, eta aukera egongo da 9:05ean Donostiako Kolon pasealekutik ateratzen den taxibusa erabiltzeko Uliara iristeko eta, eguneroko saioa amaitzean, bertatik jaisteko. Inskripzioa aste osorako da eta 50 € balio ditu (izen-emateak www.cristinaenea.eus bidez).

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:



NatUDAlekuak, colonias de verano en Ulía, una oportunidad única de pasar las vacaciones en la naturaleza

- *Fundación Cristina Enea ha organizado por primera vez colonias de verano en el Centro de Interpretación de Ulía. La oferta está dirigida a niños y niñas entre 6 y 10 años que podrán disfrutar durante 4 horas diarias de un entorno único como Ulía, con actividades que se desarrollarán en la propia naturaleza.*
- *La oferta será la semana del 1 al 5 de julio y las inscripciones se abrirán el 13 de mayo en www.cristinaenea.eus.*



Donostia / San Sebastián, 3 de mayo de 2024.- Oihana Orkolaga, responsable del Centro de Interpretación de Ulía, asegura que *"está demostrado que crecer en contacto con la naturaleza tiene beneficios en el desarrollo de los niños y cada franja de edad tiene una forma especial de relacionarse con la naturaleza"*. Por eso, en esta etapa llena de curiosidad y ganas de acción, la naturaleza, y más concretamente el bosque de Ulía, es un entorno único para adquirir herramientas y conocimientos para desarrollar las capacidades de cada uno. *"A través de estas colonias de verano que ponemos en marcha por primera vez este año, vamos a dar los primeros pasos para desarrollar en los y las más jóvenes el respeto y el amor a la naturaleza de una manera lúdica, y convertirnos así en cuidadores de este tesoro verde de nuestra ciudad"*, añade Orkolaga.

Los grupos serán limitados para que la experiencia sea lo más enriquecedora posible para los participantes y entre los temas que se tratarán se encuentran las curiosidades de Ulía, los anfibios y las aves autóctonas, y los árboles e insectos de Ulía, entre otros. *"Para ello se desarrollará una metodología especial a través del juego, la observación, la experimentación y los paseos para que, además de conocer de forma didáctica el valor de la naturaleza y la riqueza de Ulía, sea también una experiencia lúdica"*, explica la responsable del Centro de Interpretación.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus



Orkolaga ha querido subrayar que la meteorología no será excusa para participar en las colonias: *"las actividades están adaptadas a todas las condiciones meteorológicas y las actividades que no se puedan realizar en el exterior se desarrollarán en el propio Centro de Interpretación de Ulía"*.

El horario será de 9:30 a 13:30 horas, con posibilidad de utilizar el taxibus que sale a las 9:05 horas desde el paseo Colón de San Sebastián para llegar a Ulía y, al finalizar la sesión diaria, bajar en el mismo. La inscripción es para toda la semana y tiene un costo de 50 € (inscripciones a través de www.cristinaenea.eus).

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

